

INFORMAZIOAREN GIZARTEA

2. LAN AGIRIA

INFORMAZIOAREN GIZARTEA LAN TALDEA

2. LAN AGIRIA: INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN EGOERA GIPUZKOAN

1. BILERA
2002KO EKAINA

1. SARRERA

Gipuzkoako Foru Diputazioak landu duen "Informazioaren Gizartearen Egoera Gipuzkoan (2001eko abendua)" txostenaren baitako 'emaitza nagusiak eta ondorioak' atala jasotzen du honako agiriak.

Aipatu txostena www.egipuzkoa.net orrian kontsulta daiteke bere osotasunean.

2. GIPUZKOAKO POPULAZIOA ETA INFORMAZIOAREN GIZARTEA

Azken hilabeteotan, nabarmen bizkortu da Gipuzkoako populazioak informazioaren eta komunikazioaren teknologiak bereganatzeko prozesua. 2001eko lehen sei hilabetekoan, Gipuzkoako populazioaren %45k (15 urtekoak eta 15 urtetik gorakoak) ordenagailu pertsonala zuen etxean, eta %68k, aldiz, telefono mugikorra. Hamabi hilabete lehenago, portzentaiak %36 eta %45 ziren, hurrenez hurren.

Interneti dagokionez, Gipuzkoako biztanlegoaren %39k (15 urtekoak eta hortik gorakoak) badu sarbidea, baina %26 bakarrik konektatzen zaio Interneti. Internautak beren etxeetatik eta lantokitik konektatzen dira nagusiki, eta, neurri txikiagoan, ikastetxetik. Internetera beste leku batzuetatik (liburutegiak, ziberkafeak...) konektatzeko joera, gutxienena den arren, argi eta garbi doa handitzen.

Bestaldetik, Gipuzkoako populazioa geroz eta maiztasun handiagoz eta geroz eta denbora luzeagorako konektatzen da Internetera: hiru erabiltzailetik bat egunero konektatzen da, eta bostetik bat, astean lau ordu baino gehiago. Erabilitako hizkuntzari dagokionez, euskararen erabilera indartzen ari dela antzematen da, nahiz eta gaztelerak hizkuntza nagusi izaten jarraitzen duen komunikazio bitarteko honen erabileran.

Web orrialdeen kontsulta eta posta elektronikoa dira gehien erabiltzen diren zerbitzuak; eta interes gehien eragiten duten gaiak, aldiz, berriak, bidaiak eta liburutegiak. Merkataritza elektronikoa dagokionez, ezartze txikia duela esan behar da (nahiz eta azken hilabeteotan bilakaera nabarmena ari den izaten). Horrela, sei erabiltzailetik batek bakarrik egiten ditu erosketak Internet bidez. Erabiltzaileek erosketak elektronikoei buruz duten pertzepzio txarrak eragiten dute, zalantzarik gabe, ezarpen maila txikian.

Liburuak eta aldizkariak, musikarekin edo musika tresnekin zerikusia duten produktuak, eta bidaiekin eta aisiarekin lotura dutenak dira Internet bidez gehien erosten diren produktuak. Era berean, Internet bidez egindako erosketetan, kreditu-txartela da gehien erabiltzen den ordainketa modua, merkataritza elektronikoen erabiltzaile direnen erdiek baino gehiagok aipatzen dutenez.

Gipuzkoako populazioan Internet ezarpen erritmo bizia ari da lortzen eta, horren ondorioz, asko ari da handitzen internauten kopurua. Baina artean ere murrizta da bitarteko horren maneiuaren ezagutza. Izan ere, erabiltzaileen erdiak baino

INFORMAZIOAREN GIZARTEA

2. LAN AGIRIA

gehiago. Interneten maneian hasi-berritzat du bere burua. Horrek egiaztatzen du Gipuzkoako bizilagunen artean ekipamendu informatikoak ezartzen jarraitzeko premia dagoela, bai eta gai honetan formazioa hobetzeko premia ere.

Informazioaren Gizartea barneratzeko orduan Gipuzkoak eta Europako Batasunak daramaten bidea alderatzen badugu, garbi ikusten da Gipuzkoako gizartearen ohituretan ez duela txokorik hartu Internetek.

Zentzu honetan, Interneterako sarbidea duten etxebizitzaren portzentaia txikiagoa da Gipuzkoan (%23 eta %36, hurrenez hurren), bai eta erabiltzaile kopurua ere, sarbide lekua edozein izanda ere.

Aipatutakoaren haritik, eta konexio denborari erreparatuta, Interneten erabilera ez da hain intentsiboa; eta, gainera, gai gehiago eta zerbitzu anitzagoak hartzen ditu bere baitan. Hori guztia, erramentaren erabileran ezagutza eta esperientzia maila txikiagoa izatearen ondorioa baino ez da.

Dena den, aurretik aipatu den bezala, azken urteotan nabarmena izan da ekipamendu informatikoen eta Interneten sarrera, eta ekipamenduak erosteko Eusko Jaurlaritzak aurrera eraman duen politika suspergarriari zor zaio neurri handian. Zentzu honetan, ordenagailua edo CD-Roma duten Gipuzkoako etxebizitzaren portzentaia eta Europako Batasunako herrietakoa oso antzerakoa da. Beste hainbat produkturen kasuan ere eman da informazioaren eta komunikazioaren teknologiek lotuta dauden ekipamenduen erosketan eman den bizkortzea; hala nola, telefono mugikorraren kasuan, zeina oso azkar bereganatu dugun, Europako Batasunean baino are azkarrago.

Informazioaren Gizartera iristeko Gipuzkoako etxebizitzek daramaten pixkanakako prozesuan, oztopo dira sarbidearen kalitatea eta azkartasuna eta konexio-tarifak. Oinarritzko alderdi horiez gain, erabiltzaile potentzial diren kolektibitate ezberdinen premia eta gaitasunei egokituko zaien prestakuntza behar da, on-line zerbitzuak eta edukiak izatea ere.

Era berean, Europarekin alderatuz, Gipuzkoan Interneten sarrera baldintzatzen duten beste hainbat faktore ere aipatu behar dira; horien artean dira, adibidez, zerbitzu pribatu eta publikoak gerturago eta irisgarriago eduki izana, eta, bide telematikoaren parean, harreman pertsonalen balorazio handiagoa.

iError!Argumento de modificador desconocido.. koadroa. **Populazioa Informazioaren Gizartean (Gipuzkoa eta Europako Batasuna)**

ADIERAZLEA	Gipuzkoa	EB-15
Internetera sarbidea duten etxebizitzak (%)	22,9	36,1
Internet erabiltzaileak (populazioaren %, 15 urte eta gehiago)	25,8	46,2
Ohiko erabiltzaileak (erabiltzaileen %) (astero edo egunero)	70,2	81,4
Erosketak Internetez (erabiltzaileen %)	16,1	34,1

Iturria: Eustat, Europako Batzordea eta Ikeri-ren lanketa. 2001eko datuak.

2.1. GIPIIZKOAKO ENPRESAK ETA INFORMAZIOAREN GIZARTEA

IKT-TICen (Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia) ezarpena Gipuzkoako enpresetan asko areagotu da azken urteotan, baina biziagotu egin beharko da datozen urteetan, batez ere tamaina txikieneko enpresetan. Gipuzkoako enpresen artean, enpresa handienak gainerakoak baino zertxobait aurrerago daude teknologia berriak barneratzeko prozesuan, eta, horregatik, ekonomia digitalak dakartzan abantailak neurri handiagoan profitatzen diren gai dira.

Gipuzkoako enpresa txiki eta ertainetan (ETE), Europako Batasuneko herrialdeetan baino txikiagoa da IKT-TICen ekipamendua, eta horrek erakusten du Gipuzkoako enpresak atzeratuta daudela Informazioaren Gizartean sartzeari dagokionez. Hori bereziki da agerikoa tamaina txikieneko enpresetan.

Hamar langileko eta hortik gorako enpresetara mugatzen badugu azterketa, teknologia berriak maila berean sartu dira Gipuzkoako enpresetan eta Europako iparraldeko herrialdeetako enpresetan; eta Europako iparraldeko enpresak abanguardia dira bai Europan bai munduan informazioaren gizarteari dagozkion eremuetan. Adibidez, 10 langiletik gora dituzten Gipuzkoako enpresetan %76k dute Internetera sarbidea, eta portzentaia hori oso gertu dago Norvegia edota Danimarkako portzentaiaetatik.

Dena den, beste hainbat kontutan, aldeak izugarriak dira. Esate baterako, berezko web orrien erabilgarritasunean. Alde horiek zera erakusten dute: IKT-TICen ekipamenduen sartze-adierazleak homologarriak badira ere, artean ere mugatua da horien erabilera aurreratua, bai merkataritza elektronikoko eragiketetan bai Gipuzkoako enpresen aktibitate eta gestioan. Orohar, interneten erabilera lehenengo urratsetara mugatzen da enpresetan, eta IKT-TICak intentsiboki erabiltzen eta ekonomia digitaletik sortzen diren aukerak egoki profitatzen hasi gabe daude enpresarik gehienetan.

Enpresen aktibitateak ere baldintzatzen du IKT-TICen ezartze-maila. Industria-enpresek zerbitzu-enpresek edo eraikuntza-enpresek baino neurri handiagoan barneratu dituzte teknologia hauek. Dena den, teknologikoki aurreratuen dauden aktibitateak hirugarren sektorekoak dira: banketxeak eta aseguruak, administrazio publikoa, hezkuntza eta enpresei zerbitzuak eskaintzen dizkietenak; horietan, pc-en ezartze-maila eta Interneterako konexioa Gipuzkoako batz bestekoa baino askoz handiagoa da.

Interneterako konexio bideei dagokienez, Gipuzkoako enpresarik gehienak modem bidez konektatzen dira, eta oso establezimendu gutxi erabiltzen dituzte beste konexio bide batzuk. Era berean, enpresetan oso gutxi barreiatuta daude sareen eta truke elektronikoinformatikorako ekipoak; hogei enplegatutik gorako enpresetan bakarrik dute nolabaiteko presentzia.

Gipuzkoako enpresetan Internet honako helburuekin erabiltzen da: posta elektronikoa eta agirien bilaketa, enpresaren tamaina edo aktibitate-sektorea bata izan hala bestea izan.

INFORMAZIOAREN GIZARTEA

2. LAN AGIRIA

Bestaldetik, web orria daukaten enpresen proportzioa ia minimoa da, eta horietan, enpresen gaineko informazioa, beren produktu/zerbitzuen gaineko informazioa, edo eskaintzen dituzten ondasun/zerbitzuen zerrenda/katalogoa dituzte nagusiki.

Merkataritza elektronikoari dagokionez, Internet bidez erosketara edo salmentaren bat egiten duten establezimenduen portzentaia ez da %1era iristen, eta eragin ekonomiko txikia du.

Azkenik, Gipuzkoako enpresen iritziz merkataritza elektronikoa zein faktoreak oztokatzen duten aipatuko dugu. Ondasun eta zerbitzuen izaera litzateke desabantailarik nagusia (Internet bidez sal-erostea zailtzen du berez), bai eta egungo merkataritza eredua lehenestea ere. Kontrara, azkartasuna, merkatua zabaltzeko aukera, bezeroari zerbitzu hobea eskaintzeko aukera eta publizitatea dira internet bidezko sal-erosketa pizten duten faktoreak.

Enpresak Informazioaren Gizartean (Gipuzkoa eta Europako Batasuna)

	Gipuzkoa	EB-15
IKT-TIC ekipamenduak pyme-tan (3-50 enplegu, enpresen %)		
• Ordenagailua.....	76,9	93,2
• Internet.....	46,9	54,4
Berezko web orria (9 enplegu baino gehiago, enpresen %)	28,3	69,2*
IKT-TIC ekipamenduak (9 enplegu baino gehiago, enpresen %)		
• Internet.....	76,1	86,0*
• Intranet.....	34,1	37,0*
• EDI.....	26,6	26,5*
Internet-en erabilera (sarbidea duten enpresen %)		
• Informazio bilaketa.....	82,3	79,0
• Administrazio Publikoarekin tratua.....	19,6	27,0
• Marketinga.....	20,4	51,0
• Fitxategien trukea.....	53,9	44,0
• Ondasun eta zerbitzuen salmenta.....	3,4	27,0

*: Europako iparraldeko herrialdeetako (Danimarka, Finlandia, Suedia eta Norvegia) batzbesteko haztatua

Iturria: Eustat, Europako Batzordea eta Ikei-ren lanketa.

2.2. INFORMAZIOAREN ETA KOMUNIKAZIOAREN TEKNOLOGIEN SEKTOREA GIPUZKOAN

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien sektoreak pisu dexentekoa du Gipuzkoako ekonomiaren baitan, BPGaren %4,6 eta enpleguaren %3,4 sortzen baitu gutxi gorabehera. Gainera, nazioarte mailan gertatzen den antzera, sektorearen orain gutxiko bilakaeran hazkunde tasa altuak eman dira, ekonomia orohar hartuta izan direnak baino tasa altuagoak.

Sektore honetan daude, OCDEren sailkapenaren arabera, IKT-TIC ondasunak (ordenagailuak, telebista eta irrati aparailuak, industri-kontrolerako ekipiak, etb.) fabrikatzen dituzten enpresak, era honetako ondasunen merkataritza egiten duten establezimenduak, telekomunikazio enpresak eta software eta informatika zerbitzuak eskaintzen dituztenak.

Gipuzkoan, IKT-TIC ekipoen manufaktura-industria industria-ondasunen fabrikazioari emana dago nagusiki, eta sektorearen produkzioaren eta enpleguaren erdia suposatzen du gutxi gorabehera. Baina balio erantsiari dagokionean, telekomunikazio sektorearen ekarpena da nabarmentzen, eta, dinamismoari eta enpresen sorrerari dagokionean, aldiz, software eta informatika zerbitzuen aktibitatea.

Sektoreko enpresen tamainari eta aktibitateari begiratu gero, manufaktura-industria, ondasunen merkataritza eta aktibitate informatikoak bereiz daitezke, alde batetik, eta telekomunikazioak, bestetik. Lehenengo aktibitate multzoa biziagoa da esku-lanean eta tamaina txikiko enpresek osatzen dute. Telekomunikazio enpresak, kontrara, biziagoak dira kapitalean, tamaina handiagoa dute eta produktibitate handiagoa lortzen dute.

Berrikuntza ahalegina da sektorearen beste ezaugarrietako bat; batez ere manufaktura eta informatika aktibitateen azpisektorearena. Hala, egindako kalkuluen arabera, IKT-TIC sektoreak B+Gean (I+D) gastatutako dirua Gipuzkoan horretan inbertitutako guztiaren %15 inguru da.

Azkenik, Europa iparraldeko herrialdeekin egindako azterketa konparatiboak erakusten duenez, oso antzekoak dira Gipuzkoako eta Danimarkako ekonomietan IKT-TIC sektoreak duen garrantzia, bai BPGari bai enpleguei dagokienean, eta Suedian edo Finlandian baino garrantzia zertxobait txikiagoa du. Ez da ahaztu behar azken herrialde hauetan IKT-TIC aktibitateen presentzia oso handia dela.

INFORMAZIOAREN GIZARTEA

2. LAN AGIRIA

Enpresak Informazioaren Gizartean (Gipuzkoa eta Europako Batasuna)

	BEG IKT-TIC/ BPG %	IKT-TIC enpleguak/ Enpleguak Guztira %
Danimarka	4,4	3,3
Finlandia	5,5	4,5
Suedia	5,0	4,8
Gipuzkoa	4,4	3,4

Iturria: Eustat eta Europako iparraldeko herrialdeetako Estatistika Institutuak. Ikei-k landua, 1998.

Eskandinaviarekin egindako konparaketak agerian uzten du IKT-TIC sektoreko Gipuzkoako enpresen produktibitatea eta Suediako enpresena oso antzerakoa dela, baina Finlandiako eta Danimarkako enpresena baino txikiagoa.

Azkenik, eskura ditugun datuen arabera (eguneratu beharrea dira), Gipuzkoako enpresek, beren balio erantsi gordinarekiko, oso gutxi inbertitzen dute I+Gea (I+D), Eskandinaviako enpresen parean.

2.3. INFORMAZIOAREN GIZARTEAREN AZPIEGITURAK GIPUZKOAN

Informazioaren Gizartea gara dadin, alderdi garrantzitsu eta estrategikoa da abiadura handiko sareak hedatzea, horrek sarbide baldintza egokiak errazten dizkielako telekomunikazio-zerbitzu aurreratuei.

Gipuzkoako populazioari bi operatzaile nagusik ematen dizkie funtsean banda zabaleko sarbide sareak: Euskaltelek eta Telefónica-k, kablemódem eta ADSL aukera teknologiko nagusiekin, hurrenez hurren.

Eskuarteetan ditugun datuek (2001eko abuztua) erakusten dutenez, Gipuzkoan 24.960 etxebizitzek dute kablemódem bidezko sarbidea, eta datozen hilabeteetan azkar haziko den aurrikuspenak daude.

2006. urteari begira, Euskaltelek Gipuzkoako 41 udalerritara zabaldu nahi du sare finkoa; udalerririk horietan bizi da gaur egun Gipuzkoako populazioaren %95. Artea ere zehazteko du Euskaltelek lurralde historikoko gainerako udalerritara noiz zabalduko duen sarea.

Bizitegi-guneetan dauden enpresa txikiei dagokienean, 6.900 daude kableatuta gaur egun, eta industrialdeetako 600 enpresa. Datozen urteotan hazkunde handia izango dela aurrikuspenak da, gainera.

Banda zabaleko ADSL sarbide teknologiarik dagokienean, Telefónicak Gipuzkoako populazioaren %97 estaltzen du (2001eko urria). Azken hilabeteotan, sartzeko maila handia ezagutu du.

2. LAN AGIRIA

Azkenik, Europako Batasuneko batzbestekoarekiko, banda zabaleko teknologiek Gipuzkoan barneratze txikia (kontratutako linea kopurua) dutela erakusten dute datuek.

2.4. HEZKUNTZA ZENTROAK GIPUZKOAN ETA INFORMAZIOAREN GIZARTEA

Gipuzkoako ikasleen (15 urtekoak eta hortik gorakak) %79k badu Internetarako sarbidea ikastetxetik. Europako Batasuneko portzentaia (%80) oso antzekoa da.

Gipuzkoako ikastetxeetan (lehen eta bigarren hezkuntzako zentroak), ikasleko 10 ordenagailu daude, Europako Batasuneko zifra ere antzekoa izanik.

Bestaldetik, Gipuzkoako unibertsitate ezberdinetan matrikulatutako ikasleen %14k egiten dituzte IKT-TICekin zerikusia duten ikasketak; nagusiki informatika eta ingeniari tekniko elektronikoko- industrialak. Zentzu honetan, IKT-TICetako profesionalen eskaria asko handituko dela aurrizten da, bai erabiltzaile diren erakundeetako ikerkuntza teknologikoko sailetatik, bai zerbitzuen hornitzaile direnetatik ere.

iError!Argumento de modificador desconocido.. **koadroa. Ikastetxeak Informazioaren Gizarlean (Gipuzkoa eta Europako Batasuna)**

ADIERAZLEA	Gipuzkoa	EB-15
Ordenagailuak (populazioa eta ikastetxeak, hurrenez hurren, %)	85,6	94,0
Internet (populazioa eta ikastetxeak, hurrenez hurren, %)	78,8	80,0
Ordenagailuak ikasleko (zb.)	10,1	8,9

Iturria: Eustat, Eusko Jaurlaritzak, Europako Batzordea eta Ikerkuntza, 2001eko datuak.

2.5. GIPUZKOAKO ADMINISTRAZIOA ETA INFORMAZIOAREN GIZARTEA

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia Berriak 1996tik aurrera ezarri dira nagusiki Gipuzkoako administrazioan (foru administrazioan eta udal administrazioan). Ezarpenak honako ezaugarriak izan ditu: administrazio osoak sare bakarra du escurra; informazio sistema korporatiboak (Foru Diputazioa); herrialdeko Udalarentzat metodologia, prozedura eta aplikatibo berberak; eta teknologia era homogeneoan ezarri dela Udal administrazio guztietan.

Honako egitasmo nagusiak (informazioa eta zerbitzuak) gauzatu dira 1996-2000 denboraldian: Foru Diputazioaren Intranet-a, Udaletako Intranet-a, herritarrari zuzendutako zerbitzuak (IKHA eta Osoa Proiektuak) eta Gipuzkoa.net, Gipuzkoaren atari instituzionala.

Gipuzkoako administrazioaren (Udalak, Foru Diputazioa, Batzar Orokorrak) informazio zabala erakusten du www.gipuzkoa.net atariak. Guztira 16 eremu

INFORMAZIOAREN GIZARTEA

2. LAN AGIRIA

tematiko, bilatzaile instituzional bat, Buletin ofizialetarako sarbidea, deialdi publikoak, informazio geografikoa eta on-line zerbitzuak eskaintzen ditu, informazio eta zerbitzuetarako sarbide ugarekin batera.

Zerga aitortpena telematikoki egiteari dagokionez (PFEZ, Ondarea eta Elkartek), 120.400 egin ziren 2000an, zerga aitortpen guztien %38.

Gipuzkoako Udal administrazioetan, 25k du web orria, Europako bataz bestekoa baino portzentaia txikiagoa izanik. Baina, UDALgida.net orrialdetik eskaintzen diren zerbitzuak azpimarra daitezke; Gipuzkoako udalerrien gaineko informazio zabala dakar aipatu orrialdeak.

2.6. GIPUZKOAKO ADIERAZLEAK INFORMAZIOAREN GIZARTEAN: POPULAZIOA, ENPRESAK, IKT-TIC SEKTOREA, AZPIEGITURAK, HEZKUNTZA ZENTROAK ETA ADMINISTRAZIOA

iError!Argumento de modificador desconocido.. **koadroa. Gipuzkoa Informazioaren Gizartean. 1.) Populazioaren adierazleak**

POPULAZIOA (2001)	%
Informatika ekipamenduak (15 urteko eta hortik gorako populazioaren %)	
• Ordenagailua	45,3
• CD-Roma	42,0
• Mòdem faxa	27,5
• Internet	22,9
• e-posta	22,8
Telebista ekipamenduak (15 urteko eta hortik gorako populazioaren %)	
• Bideoa	78,9
• Teletextoa duen telebista	67,0
• Antena parabolikoa	19,7
• Ordain- telebista	16,5
Internetera sarbidea (15 urteko eta hortik gorako populazioaren %, erabilgarritasuna, erantzun anitza)	39,4
• Etxebizitza	22,9
• Lantokia	17,6
• Ikastetxea	7,9
Internet erabiltzaileak (15 urteko eta hortik gorako populazioaren %)	25,8
Konetatzeko maiztasuna (erabiltzaileen %)	
• Egunero	32,8
• Astero	37,4
• Hilero	19,8
• Noizean behin	10,0
Asteko konexio denbora (erabiltzaileen %)	
• 10 ordu baino gehiago	8,2
• 4 eta 10 ordu artean	11,8
• 1 eta 4 ordu artean	50,9
• Ordubetik behera	29,1

INFORMAZIOAREN GIZARTEA

2. LAN AGIRIA

POPULAZIOA (2001)	%
Sarbidearen aintzintasuna (erabiltzaileen %)	
• Hiru urte edo gehiago	18,8
• Bi urte	25,0
• Urtebete	26,5
• Urtebetetik behera	29,6
Ezagutza maila (erabiltzaileen %)	
• Aditua	2,5
• Aurreratua	7,7
• Erdibidekoa	37,4
• Hasberria	52,3
Erabilitako hizkuntza (erabiltzaileen %, erantzun anitza)	
• Gaztelera	98,5
• Ingelera	36,2
• Euskara	29,7
• Frantsesa	3,5
Erabili ohi diren zerbitzuak (erabiltzaileen %, erantzun anitza)	
• Web (kontsultak)	79,2
• Posta elektronikoa	72,3
• Txat-ak	18,3
• Fitxategien transferentziak	13,3
• Bestelakoak (foroak, ...)	6,1
Intereseko gaiak (erabiltzaileen %, erantzun anitza)	
• Berriak	77,7
• Bidaiak	76,9
• Liburutegiak	74,7
• Jokoak, Zaletasunak	62,1
• Enplegu bilaketa	56,1
Produktuen erosketak (erabiltzaileen %)	16,1
Erositako produktuak (erabiltzaileen %, erantzun anitza)	
• Liburuak, aldizkariak	36,8
• Musika, musika tresnak	36,4
• Bidaiak, aisia	32,2
• Softwarea	26,0
• Hardwarea	17,4

INFORMAZIOAREN GIZARTEA

2. LAN AGIRIA

iError!Argumento de modificador desconocido.. **koadroa. Gipuzkoa Informazioaren Gizatean. 2.) Enpresen eta IKT-TIC sektorearen adierazleak**

ENPRESAK (2001)	GUZTIRA	10 enplegu eta gehiago
Ekipamendu informatikoak (establezimenduen %)		
• Ordenagailu pertsonala	50,7	96,4
• Posta elektronikoa	24,1	72,4
• Internet	26,7	76,1
• Telefono mugikorra	49,6	76,1
Truke elektronikoa eta informatikoetarako sareen ekipamendua (establezimenduen %)		
• Sare lokala edo hedatua	10,2	53,0
• Intranet	6,1	34,1
• Extranet	1,5	11,1
• Ondasunen transferentzia	19,2	49,7
• Datuen elkartrukea (Internet)	9,2	26,2
Erabilera mota (establezimenduen %)		
• Posta elektronikoa	90,5	--
• Agiriaren bilaketa	82,3	--
• Fitxategi elektronikoen trukea	53,9	--
• Administrazio Publikoaren informazioa eskuratzea	45,2	--
• Publizitatea/marketing	20,4	--
Berezko web orriak (establezimenduen %)	3,9	28,3
Eskainitako zerbitzuak (web orria duten enpresen %)		
• Enpresaren informazio orokorra	95,4	--
• Produktu/zerbitzuen gaineko informazioa	86,2	--
• Ondasun eta zerbitzuen gaineko informazioa	83,3	--
• Beste erakunde batzuekin partekatutako informazioa	23,6	--
• Bezeroarentzat pertsonalizatutako zerbitzua	19,6	--
Internet bidezko salmentak (establezimenduen %)	0,7	3,2
Internet bidezko erosketak (establezimenduen %)	0,7	3,8

IKT-TIC SEKTOREA (1999)	
BPGren %	4,6
Fakturazioaren gaineko BGE (mil. pzta)	91.482
• Manufaktura-industria (%)	30,8
• Ondasun eta zerbitzuen salmenta (%)	15,8
• Telekomunikazioak (%)	41,4
• Software eta informatika zerbitzuak (%)	11,9
Enpresak (establezimendu zb.)	540
Enplegua (langile zb.)	9.367
• Guztizko enpleguaren %	3,4
Gastua I+Gn (BGEren %)	3,7

INFORMAZIOAREN GIZARTEA

2. LAN AGIRIA

Gipuzkoa Informazioaren Gizartean. 3.) Azpiegituren, hezkuntza zentroyen eta Administrazioaren adierazleak

AZPIEGITURAK	
Telefono lineak (2000, zb.)	307.817
ADSL lineak (2000, zb.)	703
RDSI lineak (2000, zb.)	12.751
Kableatutako etxebizitzak (2001eko abuztua, zb.)	24.960
Kableatutako establezimenduak (2001, zb.)	6.900
Baserriko TRACs Telefonía (2000, zb.)	593
HEZKUNTZA ZENTROAK (2001)	
Ekipamenduak (2001, ikasleen %)	
• Ordenagailua	85,6
• Módem-faxa	74,0
• CD-Roma	75,9
• Internet	78,8
Ikasleak ordenagailuko (lehen eta bigarren hezkuntza) (2000) (zb)	10,1
• Sare publikoa	9,6
• Sare pribatua	10,5
Unibertsitate ikasleak IKT-TIC (2001) (zb.)	3.265
• Guztizko ikasleen %	14,1
ADMINISTRAZIOA (2001)	
Web orria duten Udalak (zb.)	25
Zergen aitopen telematikoa (mila) (zb.)	120,4

Iturria: Eustat, Telefónica, Euskaltel, Eusko Jaurlaritzá, Euskal Herriko Unibertsitatea, Mondragón Unibertsitatea, Nafarroako Unibertsitatea eta Gipuzkoako Foru Diputazioa. Ikei-k landua.

2.7. EUROPAKO BATASUNEN ETA GIPUZKOAKO ADIERAZLEAK INFORMAZIOAREN GIZARTEAN: AZTERKETA KONPARATIBOA

Gipuzkoa eta Europako Batasuna Informazioaren Gizartean. 1.) Populazioaren adierazleak

POPULAZIOA (2001)	Gipuzkoa	EB-15
Internet erabiltzaileak (15 urteko eta hortik gorakoko populazioaren %, erantzun anitza)	25,8	46,2
• Etxebizitza	15,0	30,9
• Lana	11,5	19,3
• Ikastetxea	5,2	9,0
Interneterako sarbidea (etxetik %)	22,9	36,1
Internet erabiltzeko maiztasuna (erabiltzaileen %)		
• Egunero	32,8	38,3
• Astero	37,4	43,1
• Hilero	19,8	9,5
• Noizean behin	10,0	9,0
Interneten erabilera nagusiak (erabiltzaileen %, erabilera anitza)		
• Posta elektronikoa	72,3	76,7
• Berriak	77,7	70,6
• Bidaiak	76,9	60,2
• Enplegua (bilatzea)	56,1	28,3
• Hezkuntza	54,2	41,5
Produktuen erosketá Internet bidez (erabiltzaileen %)	27,2	25,0

* Ikei-ren kalkulua.

INFORMAZIOAREN GIZARTEA

2. LAN AGIRIA

Cuadro iError!Argumento de modificador desconocido.. Gipuzkoa eta Europako Batasuna Informazioaren Gizartean. 2.) Enpresen eta IKT-TIC sektorearen adierazleak

ENPRESAK (2000)	Gipuzkoa	EB-15
IKT-TIC ekipamenduak ete(pyme)-tan (3-50 enplegu, enpresen %)		
• Ordenagailua	76,9	93,2
• Internet	46,9	54,4
Interneten erabilerak (sarbidea duten enpresen %)		
• Informazioaren bilatzea	82,3	79,0
• Tramiteak Administrazio Publikoarekin	19,6	27,0
• Marketinga	20,4	51,0
• Fitxategien trukea	53,9	44,0
• Ondasun eta zerbitzuen salmenta	3,4	27,0
Berezko web orrien erabilgarritasuna (9 enplegu baino gehiagoko enpresen %)	28,3	69,2
TIC-IKT ekipamenduak (9 enplegu baino gehiagoko enpresen %)		
• Internet	76,1	86,0
• Intranet	34,1	37,0
• Extranet	11,1	19,0
• EDI	26,6	26,5

** : Europako iparraldeko herrialdeen batzbestekoa (Danimarka, Finlandia, Norvegia eta Suedia).

iError!Argumento de modificador desconocido.. koadroa. Gipuzkoa eta Europako Batasuna Informazioaren Gizartean. 3.) Azpiegituren, hezkuntza zentrozen eta Udal Administrazioaren adierazleak

IKT-TIC SEKTOREA (1999, 1998)	Gipuzkoa	EB-15
• BEG (BPGren %)	4,4	4,9
• Enplegua (guztizko enpleguaren %)	3,4	4,2
• BEG/enplegua (mila euro)	58,9	65,1
• Gastua I+Gn (BEGren %)	3,7	11,0
AZPIEGITURAK (2000)	Gipuzkoa	EB-15
• Telefono linea konbentzionalak (100 biztanleko)	45	46
• RDSI lineak (100 biztanleko)	2	8
• Telefono mugikorra (100 biztanleko)	46	40
• DSL lineak (1.000 biztanleko)	1	4
HEZKUNTA ZENTROAK (2001)	Gipuzkoa	EB-15
• Ordenagailua (populazioa eta zentroak, hurrenez hurren, %)	85,6	94,0
• Internet (populazioa eta zentroak, hurrenez hurren, %)	78,8	80,0
• Ordenagailuak ikasleko (nº)	10,1	8,9
UDAL ADMINISTRAZIOA (2001 eta 2000, hurrenez hurren)		
• Web lekua (udal administrazioa %)	28,4	56,0

*** Europako iparraldeko herrialdeen batz bestekoa (Danimarka, Finlandia eta Suedia)
Iturria: Eustat, Europako Batzordea eta beste iturri estatistiko batzuk. Ikei-k landua.